



Ospitalean ematen diren sendagaiei buruzko informazioa

ADALIMUMAB - HUMIRA® SENDAGAIA NOLA PRESTATU ETA HARTU

Adalimumab (Humira® da izen komertziala) aurrez kargatutako eta behin bakarrik erabiltzeko xiringetan banatzen da, eta larruazalpean administratzen.

Medikamentu horrek gaixotasun inflamatorioen seinale eta sintomei eragiten die.

KONTUAN IZATEKOAK

Infekzio baten seinaleak badituzu (katarroa, sukarra...), galdetu medikuari sendagaia hartu aurretik.

GARRANTZITSUA: Eskuak ondo garbitu eta prestatu erabili behar duzun material guztia erraz hartzeko tokian.

SENDAGAIA PRESTATZEA

Xiringa kaxa barruan gorde behar da hozkailuan, **inoiz ez izozkailuan**.

Atera xiringa hozkailutik sendagaia hartu baino 20 minutu lehenago, gutxi gora behera.

Ez astindu edo irauli xiringa.

Begiratu xiringaren iraungitze-data sendagaia hartu baino lehen. Ez erabili produktua data horren ondoren.

Ez da xiringa erabili behar izoztu bada edo zuzenean argiak eman badio.

Xiringak badu zulo bat barruko aldea ikusteko. Hortik begiratuta, egiaztatu likidoa argia eta kolorerik gabekoa dela.





Ireki Humira® sendagaiaren kaxa. Barnean aurrez kargatutako xiringa bat egongo da, dagokion orratzarekin.



Xiringaren barruko aldea ikusteko zulotik begiratuta, egiaztatu likidoa argia eta kolorerik gabekoa dela.





<p>Sendagaia izterretan edo abdomenean eman behar da. Injekzio berri bakoitza aurreko injekziotik 3 cm-ra jarri behar da, gutxienez. Ez injektatu sendagaia azala gorria, mindua edo gogortua dagoen zona batean.</p>	
<p>Hartu xiringa eta kendu 1. estalkia (grisa): Ez ukitu babesgailuaren barruan dagoen orratza.</p>	
<p>Ez jarri berriz estalki grisa xiringan, orratza honda liteke-eta. Kendu 2. estalkia (gorri iluna), xiringaren goiko aldeko botoi aktibatzailea bistan utzita. Ez sakatu botoi aktibatzailea injekzioa jartzera zoazen arte. Ez jarri berriz estalki gorri iluna, sendagaia xiringatik ateratzen has liteke-eta.</p>	
<p>MEDIKAZIOA EMATEA</p>	
<p>Garbitu injekzioa jartzeko azalaren zona sendagaiarekin batera ematen den paper-zatiarekin. EZ ukitu berriz zona hori injekzioa jarri baino lehen.</p>	
<p>Injekzioa: Sartu orratza azalean 90 graduko angeluan. Behatz lodiarekin edo erakuslearekin, sakatu botoi aktibatzailea klik ozen bat entzun arte (injekzioaren hasiera). Eutsi xiringari aurreko indar berdina eginez. «Zenbatu 10 segundo».</p>	
<p>Adierazle horia gelditu eta xiringaren barruko aldea ikusteko zuloaren erdian geratzen denean amaitzen da injekzioa.</p>	
<p>Injekzioaren ondoren: Atera xiringa azaletik, betiere 90 graduko angeluan, hau da, sartzerako angelu bera mantenduz. Aposituarekin, presio egin injekzioaren zonaren gainean segundo batzuez. Ez igurtzi injekzioaren zona. Garbitu eskuak.</p>	
<p>Injekzioa eta gero, bota erabilitako xiringa edukiontzira berehala.</p>	